SAGARDOAREN LURRALDEA
el territorio de la sidra

Astigarraga eta sagardoa

PRENTSA DEIALDIA

Gaia:
2019ko sagardo sagarraren heldutasunaren eta XIX. Sagar Uztaren aurkezpena.

Data: 2019ko irailak 24 (asteartea)

Ordua: 12:30

Tokia:
Astigarragako Udaletxeko plaza
Foru Plaza, 13
20115 Astigarraga

Deskribapena:
Uzta sasoian egonda, **2019ko sagardo sagarraren heldutasunaren egoeraren txostena** eta **analisia** aurkeztuko dira.

Bestalde, irailaren 26-28-29an Astigarragan ospatuko den, sagarra protagonista izango den eta sektorearen parte-hartze handia izango duen **XIX. Sagar Uzta 2019 sagarraren jaia** aurkeztuko da.

Ekitaldiaren ospakizun nagusia irailaren 29an (igandea) izango da eta bertan, unean bertan egindako 2019 uztako lehen muztioa dastatzeko eta sagardogileek dastatzen emango duten muztioaz gozatzeko aukera izango da. Urten gainera, berrikuntza gisa, aipamen berezia egingo zaio sagar ekoizle bati sagardo sagarraren alde egindako lanagatik.

Egitaraua:
- Sagardo sagarraren heldutasunaren aurkezpena eta zuzeneko azterketa sagardogileen eskutik.
- Bertako sagardo sagar ezberdinen dastaketa.
- Sagar Uzta 2019ko egitaraua eta jardueren aurkezpena.

Bertan izango dira **Xabier Urdangarin** Astigarragako Alkatea, **Felix San Sebastian** FRUITEL Elkarteko Lehendakaria, Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko **sagardogileak**, **tabernariak** eta **kultur taldeak**.

Asistentzia baieztatzea eskertzen dugu.

Elkarrizketak eskatzeko / Informazio gehiagorako:
Leire Alkorta (Prentsa arduraduna)
Telf: 943 550 575
E-maila: info@sagardoarenlurraldea.eus
Web: www.sagardoarenlurraldea.eus